



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO IRAILAREN 10EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.09.10.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

Zinegotziak:

Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-M. Dolores Alzugaray Sein andrea: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 3.-M .Rosario Madariaga Mitxelena andrea: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 4.- Estatuko "Sara" sareari atxikimendua.
- 5.-2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana: baserrietako bideak moldatzeko esleitzeko onespina.
- 6.-Zerbitzu anitzetako langilea mailaz igotzeko deialdiaren oinarrien onespina.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2018ko abuztuaren 13an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-M. DOLORES ALZUGARAY SEIN ANDREA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik M. Dolores Alzugaray Sein andreak aurkeztutako eskaera, Simonen Borda alderdian dagoen pinudiaren aprobetxamendua egiteko (matarrasa), 6. poligonoko 85. eta 281. lurzatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Dolores Alzugaray Sein andreari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

3.-M. ROSARIO MADARIAGA MITXELENA ANDREA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik M. Rosario Madariaga Mitxelena andreak aurkeztutako eskaera, Iturriotzen Borda alderdian dauden zuhaitzen aprobetxamendua egiteko (27 makal, bananondo bat eta akazia bat), 6. poligonoko 122. eta 125. lurzatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Rosario Madariaga Mitxelena andreari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

4.- ESTATUKO "SARA" SAREARI ATXIKIMENDUA.

Ikusirik Lurralde Politika eta Administrazio Publikoko Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko 2015eko uztailaren 17an sinatu zen lankidetza hitzarmena.

Ikusirik SARA sarearen zerbitzua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako lankidetza hitzarmenari atxikimendua adieraztea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2) Behar diren tramiteak egitea, Udaleko langileei ahalmena emanaz horiek egiteko.

3) Akordio hau jakinaraztea Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministeritzari Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bezala, hitzarmenaren 2. puntuan ezarritako jarraituz.

5.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: BASERRIETAKO BIDEAK MOLDATZEKO LANAK ESLEITZEKO ONESPENA.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako 540/2018 ebazpenaren bidez, aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa Aranako Erreka alderdiko bidea moldatzeko.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako 570/2018 ebazpenaren bidez, aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa Albizko alderdiko bidea moldatzeko.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako 572/2018 ebazpenaren bidez, aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa Haritzondo-Etxezarreta alderdiko bidea moldatzeko.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako 573/2018 ebazpenaren bidez, aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa Mainborda alderdiko bidea moldatzeko.

Kontuan hartuz 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen 18/2016 Foru Legean xedatutakoa, esleipena eta obrei buruz.

Kontuan hartuz herriko bideak kontribuzio berezien bidez finantzatu dela beti.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Auzotarrekin bilera egitea aipatutako obren kontribuzio berezien berri emateko.

6.-ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA MAILAZ IGOTZEKO DEIALDIAREN OINARRIEN ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2018ko martxoaren 5ean egindako bileran, Anjel Urtxegi Telletxea jauna mailaz igortzeko eskaera dela eta, erabaki zuen plantillaren aldaketa hasiera batean onartzea eta espedientea idazkaritzan ikusgai jartzea, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizileko 84. alean argitaratu zen 2018ko maiatzaren 3an.

Irekitako epean ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Pantilla organikoaren aldaketa behin betikoz onartzea.
- 2) Deialdian oinarriak onartu.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 108. ebazpenetik 111. ebazpena arte.

8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

9.-M. CARMEN ECHEVERRIA ALZURI: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik M. Carmen Echeverria Alzuri andreak aurkeztutako eskaera, Zalduregi eta Mugarai alderdietan dauden pinuen aprobetxamendua egiteko (matarrasa), 6. poligonoko 283. eta 89. lurzatieta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) M. Carmen Echeverria Alzuri andreari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

